

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak I+Ga bultzatu du 29 milioi euroekin

Enpresei eta ikerketa zentroi laguntzeko eta doktoregaien kontratazioa sustatzeko lau deialdi ebatzi dira

Osteguna, 2018.eko uztailak 5

Nafarroako Gobernuak, I+Gari zuzendutako pizgarriei eutsiz, dirulaguntzak esleitu dizkie enpresei, zentro teknologikoei eta ikerketa-zentroi, enpresetan eta erakundeetan ikertzaileen kontratazioa sustatzeko laguntzak barne hartuta. Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusi Yolanda Blancok onartutako lau deialdien guztizko zenbatekoa 29.076.602,4 eurokoa da.

Laguntza ekonomikoa zentro teknologikoei eta ikerketako eta ezagutzaren zabalkunderako erakundeek zuzendu zaie I+G arloko proiektuak lantzeko, proiektu estrategikoak gauzatzeko, enpresetan I+G proiektuak garatzeko, eta ikerketa arloko enpresa eta erakundeetan doktoregai industrialen kontratazioa sustatzeko.

Lehenengo kasuan, [zentro teknologikoentzako laguntzak](#) 12 erakunde onuradunen artean banatu dira; 7.997.980,95 euro, guztira.

[S3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren](#) arabera garatutako ikerketa proiektuak bultzatzea xede duen [“2018-2020ko I+G arloko proiektu estrategikoak gauzatzeko laguntzak”](#) deritzon dirulaguntza-deialdiari buruzko ebazpenak 9.182.406,65 euroko guztizko zenbatekoa eman die erakunde eta enpresa onuradunei, honela banatuta: 1.615.902,36 euro 2018an; 4.000.000 euro 2019an eta 3.566.504,29 euro 2020an.

Deialdi honen barruan, “0 isurketako Ibilgailuak, Irismen handia eta Teknologia Aurreratua”; “Energia Berriztagarriaren Biltegitratzea erabilpena optimizatzen” eta “Genomika eta Medikuntza Aurreratua” bezalako S3ko Erronkak babestu dira, baita “Elikadura Pertsonalizatua eta Iraunkorra” deritzon erronkarekin lerrotutako proiektuak ere.

Erronka horien barnean, honako proiektu hauen garapena onartu da: “Gidatze autonomorako balazta-sistema adimendunak-SOFIA” (Automozio eta Mekatronikako I+G Fundazioaren eta Etecna Consulting, Frenos Iruña eta Permanent Magnets enpresen lankidetzaz); “Biltegitratutako energia berriztagarriaren kudeaketarako teknologiak-GERA” (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Acciona, CENER Fundazioa eta Nafarroako Energia Eolikoaren Klusterra partaide dituen besteak beste); Fatxadetarako Trombe ur-horma aktibo, modular eta arina-TROMBE” (CENER, Aldakin, Carpintería Garcíandía, Soltek S KOOP, Contec ingeniariak eta Javier Flores Arkitektura partaide dituen proiektua); Gutxiegitasun kardiako kronikoa eta giltzurruneko gaixotasun kronikoa duten pazienteen diagnostia eta tratamendua pertsonalizatzeko azterlan genomikoa (Bihotz-

Giltzurruneko Medikuntza Pertsonalizatua Nafarroan-MINERVA); “Epilepsiaren eta migrainaren diagnosi genomikoaren ezarpena Nafarroan-GENEURONA”; “PHARMANAGEN”, “Landare-proteinaren ekoizpen eta kontsumo iraunkorra Nafarroan-PROTEVEG”; “Mikrobiotaren modulazio pertsonalizatua elikagaien eta osagaien diseinu adimendunaren bitartez eta enterotipoetan oinarritutako diagnostik abiatuta-NUTRIBIOTA”.

Diruz lagundutako banakako 101 proiektu

Era berean, Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren ebazpenaz, “[2018ko I+G proiektuetarako laguntzak](#)” deritzon dirulaguntza-deialdia ere ebatzi da, 11.253.473,7 eurorainoko finantzaketarekin. Zenbateko horren % 50 Eskualde Garapenerako Europar Funtsak finantzatu du Europar Batasuneko FEDER programaren bitartez.

Kopurua hiru urtetan banatuta dago: 2.537.669,23 euro 2018an; 5.725.289,97 euro 2019an eta 2.990.514,47 euro 2020an.

Ebatzitako deialdiak enpresek banaka garatutako I+G arloko 101 proiektu diruz lagundu ditu. Bi enpresa edo gehiagoren artean gauzatutako lankidetzak bidezko 16 lan ere finantzatu ditu. Ezagutzaren transferentziako 36 proiektu ere laguntza hauetaz profitatu dira.

Azkenik, “Ikerketako eta ezagutzaren zabalkunderako enpresek eta erakundeek [doktoREGAIK kontratatzeKO](#) 2018ko laguntzak: industriako doktoREGAIK 2019-2021” delakoan, laguntzak datozen hiru urteotan banatuko dira, 214.247 euro urtero, 642.741 euroko guztizko zenbatekoa osatu arte.

Ebazpena zortzi enpresa eta erakunde onuraduni dagokie.